

**Datu pertsonalen tratamendua agintzeko
kontratua Donostiako Udala**

**Contrato de encargo de tratamiento de datos
personales Ayuntamiento de San Sebastián**

Donostian, En San Sebastián,

BILDU DIRA

PERSONAS REUNIDAS

Alde batetik, Donostiako Udalaren izenean / De un lado, en representación del Ayuntamiento de San Sebastián



Eneko Goia Laso, Alcalde Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián



Bestetik / Del otro lado

Iñigo Olaizola Arcaute, Director-Gerente de Fomento de San Sebastián, S.A.

ESKU HARTZEN DUTE

INTERVIENEN



Lehenak, Donostiako Udalaren ordezkaria den aldetik

El primero, en su calidad de representante del Ayuntamiento de San Sebastián



Bigarrenak, honakoaren ordezkaria den aldetik: / El segundo, en su calidad de representante de:

FOMENTO DE SAN SEBASTIÁN, S.A. (A20001681)

Helbidea: / Con domicilio en:

San Roke Kalea 120, Edificio ETXEZURI – San Sebastián

Bi aldeek elkarri aitortzen diote kontratu hau xedatzeko eta betetzeko gaitasun nahikoa, eta haren datatik aurrera ondore guztiak izango ditu.

Las partes se reconocen mutua y recíprocamente la capacidad suficiente para obligarse, y en especial para otorgar el presente contrato, que surte desde su fecha plenos efectos.

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

I Bi alderdiek lankidetzaz hitzarmena bat sinatu zuten Donostiako Udalaren eta Donostia Sustapena, S.A., Udal Sozietate Publikoaren arteko lankidetzaz baldintzak arautzeko, DONOSTIAN ENOGASTRONOMIA ARLOKO AISIA ETA TURISMO SEKTOREKO

I Que ambas partes suscribieron un Convenio de colaboración para regular los términos de colaboración entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la Sociedad Pública municipal Fomento de San Sebastián S.A., para su actuación como Entidad Colaboradora en la gestión de la

ENPRESEN HAZKUNDERAKO
DIRULAGUNTZEN deialdiaren kudeaketan
erakunde laguntzaile gisa jarduteko.

Convocatoria de las AYUDAS AL CRECIMIENTO
DE EMPRESAS DEL SECTOR OCOTURÍSTICO
DEL ÁMBITO DE LA ENOGASTRONOMÍA EN
SAN SEBASTIÁN

Gaur egun, hitzarmen hau gauzatzen ari da, eta urtebeteko indarraldia du. Automatikoki luzatuko da urtebeterako, erabat bukatu arte. Hitzarmenaren indarraldia ez da inola ere 2025eko abenduaren 31tik aurrera luzatuko.

Actualmente este convenio está en fase de ejecución, siendo su plazo de vigencia de un año, prorrogándose automáticamente por periodos anuales hasta su completa finalización y sin que en ningún caso, su vigencia pueda prolongarse más allá del 31 de diciembre de 2025.

II Donostiako Udala da “DONOSTIAN ENOGASTRONOMIA ARLOKO AISIA ETA TURISMO SEKTOREKO ENPRESEN HAZKUNDERAKO DIRULAGUNTZAK” datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.

II Que el Ayuntamiento de San Sebastián es el responsable del tratamiento de los datos personales recabados en el marco de la convocatoria de las AYUDAS AL CRECIMIENTO DE EMPRESAS DEL SECTOR OCOTURÍSTICO DEL ÁMBITO DE LA ENOGASTRONOMÍA EN SAN SEBASTIÁN.

III Fomento de San Sebastián, S.A., aipatutako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna da, DONOSTIAN ENOGASTRONOMIA ARLOKO AISIA ETA TURISMO SEKTOREKO ENPRESEN HAZKUNDERAKO DIRULAGUNTZEN deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko datuetara sarbidea duelako.

III Que Fomento de San Sebastián, S.A., ostenta la condición de encargada del Tratamiento de los datos personales mencionados, por tener acceso a los mismos para asegurar el buen funcionamiento de la convocatoria de las AYUDAS AL CRECIMIENTO DE EMPRESAS DEL SECTOR OCOTURÍSTICO DEL ÁMBITO DE LA ENOGASTRONOMÍA EN SAN SEBASTIÁN

IV Bi aldeek zerbitzuen Lankidetzak Hitzarmenaren Eranskin hau sinatzen dutela, hitzarmenean jasotako konpromisoak betetzeko datu pertsonalen Tratamendu agindua formalizatzeko, honako hauetan bat etorri:

IV Que ambas partes suscriben el presente Anexo al Convenio de colaboración, al objeto de formalizar el encargo del Tratamiento de los datos personales que derivan de la ejecución de los compromisos incluidos en el Convenio, lo que convienen en base a las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

1 Tratamendu eragilea behartuta dago, laguntzen kudeaketan Donostiako Udalaren ardurakoak diren datu pertsonaletara sartu behar duenean, unean-unean datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dauden araudiak betez tratatzera datu horiek, eta batez ere Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679) betez, aurrerantzean DBEO.

2 Eragileak tratatu beharreko datu pertsonalak, izenpetutako hitzarmenaren arabera, jarduera hauek biltzen dituzte:

1 La persona encargada del Tratamiento queda obligada a que los datos de carácter personal responsabilidad del Ayuntamiento de San Sebastián a los que, en la gestión de las ayudas deba acceder, sean tratados de acuerdo con la normativa de protección de datos de carácter personal vigente en cada momento, y en particular al Reglamento General de Protección de Datos (UE 2016/679), en adelante RGPD.

2 El tratamiento de datos personales por parte de la persona encargada, de acuerdo al convenio suscrito entre las partes, comprende las siguientes actividades:

Sarbidea / Acceso

Bilketa / Recogida

Erregistroa / Registro

Antolakuntza / Organización

Aldaketak / Modificación

Kontserbazioa / Conservación

Biltegiatzea / Almacenamiento

Hedapena / Difusión

Digitalizazioa / Digitalización

Erabilera / Utilización

Erkaketa / Cotejo

Ezabapena / Supresión

Suntsiketa / Destrucción

3 Hauek dira izenpetutako hitzarmenaren zereginak gauzatu ahal izateko datu pertsonalen tratamenduaren arduradunak datu pertsonalen tratamenduaren Eragilearen esku jarri dituen datuak, eta azken horrek tratatu dituenak:

3 Los datos personales tratados por la persona encargada, que pone a su disposición el responsable del tratamiento, para poder llevar a cabo las tareas objeto del convenio del que trae causa:

Identifikazio datuak

Datos identificativos

Izen-abizenak / Nombre y apellidos

Identifikazio zenbakia (NAN, IFZ, egoiliar zenbakia) / N° de identificación (DNI/NIF/N° Residente)

Sinadura elektronikoa edo errubrika / Firma electrónica o rúbrica

Posta elektronikoa / Correo Electrónico

Helbidea / Dirección

IBAN/IBAN

Jarduera Sektorea / Sector de actividad

4 Interesdunen kategoria hauei buruzko datu pertsonalak tratatzen ditu eragileak: (esate baterako: langileak, hiritarrak, adingabeak, zerbitzu baten erabiltzaileak...)

4 Las categorías de personas interesadas sobre las que se tratan datos personales por parte de la persona encargada son: (incorporar p.e: empleados y empleadas, ciudadanía, menores, personas usuarias de un servicio...)

Tratamenduaren xede diren datuak eskatzaileek, DONOSTIAN ENOGASTRONOMIA ARLOKO AISIA ETA TURISMO SEKTOREKO ENPRESEN HAZKUNDERAKO DIRULAGUNTZEN esparruan emandakoak dira, eta pertsona juridiko eskatzaileen ordezkari diren pertsona fisikoekin bat datoz.

Los datos objeto del tratamiento son los aportados por las personas solicitantes en el marco de las AYUDAS AL CRECIMIENTO DE EMPRESAS DEL SECTOR OCIO-TURÍSTICO DEL ÁMBITO DE LA ENOGASTRONOMÍA EN SAN SEBASTIÁN, que se corresponden con las personas físicas representantes de las personas jurídicas solicitantes.

5 Tratamenduaren eragileak interesdunetatik

5 En el supuesto de que la persona encargada del

zuzenean biltzen baditu hitzarmenaren helburu diren dirulaguntzak kudeatzeko datu pertsonalak, arduradunaren instrukzioak jarraituz jakinarazi beharko die. Dena den, tratamenduaren arduradunak laguntzak behar bezala kudeatzeko gutxieneko eta ezinbesteko datu pertsonalak bakarrik jaso ahal izango ditu interesdunetatik.

tratamiento recabe directamente de los interesados datos personales para la gestión de las ayudas objeto del convenio, deberá informarles siguiendo las instrucciones del responsable. En todo caso, la persona encargada del tratamiento sólo podrá solicitar de los interesados los datos personales mínimos e imprescindibles para la correcta gestión de las ayudas.

- 6 Tratamenduaz arduratzen den pertsonak modu automatizatuan edo ez-automatizatuan trata ditzake tratatu beharreko datu pertsonalak. Baliabide hauek erabil ditzake tratamendurako:

- 6 Los datos personales objeto del tratamiento, pueden ser tratados por la persona encargada del tratamiento en modo automatizado y no automatizado. Los medios empleados para el tratamiento son:

Fisikoak/ Físicos

Informatikoak / Informáticos

Mistoak / Mixtos

- 7 Tratamenduaren eragilea behartuta dago tratamenduaren arduradunak emandako instrukzioak betetzera, bai kontratu honetan ageri direnak eta bai tratamenduaren arduradunaren datuak babesteko politikak betetzetik eratorritakoak edo araudiko aldaketetatik eratorritakoak ere. Instrukzio horiek behar bezala jakinaraziko zaizkio tratamenduaren eragileari, idatziz.

- 7 La persona encargada del tratamiento tiene la obligación de cumplir con las instrucciones del o de la responsable del tratamiento, tanto las contenidas en el presente contrato, como aquellas otras que derivan del cumplimiento de las políticas en materia de protección de datos personales del o de la responsable del tratamiento o de modificaciones normativas y que serán comunicadas debidamente a la persona encargada del tratamiento por escrito.

- 8 Eragileak hitzarmena bete ahal izateko bakarrik tratatuko ditu datu pertsonalak. Era berean, debekatuta du eskura dituen datu pertsonal horiek beste norbaiti jakinaraztea, zabaltzea, lagatzea edo bidaltzea.

- 8 La persona encargada solo tratará los datos personales con la finalidad objeto del convenio. Asimismo, quedará obligado a no comunicar, difundir, ceder o transmitir a terceros los datos de carácter personal a los que accediera.

- 9 Tratamenduaren arduradunak emandako instrukzioak betetzerakoan DBEOa edo datuak babesteari buruz indarrean dagoen beste araudiren bat urratzen ari dela uste badu, Eragileak lehenbailehen jakinarazi behar dio Arduradunari.

- 9 Si la persona encargada, en ejecución de las instrucciones dadas por el o la Responsable del tratamiento, considera que está incurriendo en un incumplimiento del RGPD o de otra normativa vigente en materia de protección de datos, deberá informar al o a la Responsable inmediatamente.

10 Azpikontratazioa

Tratamenduaz arduratzen den pertsona beste norbaiten parte-hartzea behar baldin badu

10 Subcontratación

En el caso de que la persona encargada del tratamiento precise la participación de un tercero

laguntzak kudeatzeko, eta hark ere datu pertsonaletara sartu behar baldin badu, Donostiako Udalak baimendu beharko du azpikontratazioa, aurrez eta idatziz, eta horretarako, zehaztu egin beharko da zein tratamendu azpikontratatu nahi diren, eta argi eta garbi identifikatu beharko dira enpresa azpikontratista eta harremanetarako haren datuak.

Azpikontrataturako enpresak tratamenduaren azpieragilearen izaera juridikoa izango du, eta hark ere dokumentu honetan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu; horretarako, tratamenduaz arduratzen den pertsonak ezarritako kontratu obligazioak sinatu beharko dituzte enpresa esleipendunak eta hark azpikontrataturako enpresak.

Tratamenduaz arduratzen den pertsonak obligazio horiek urratuz gero, enpresa esleipenduna izango da bere obligazioak betetzetik eratorritako ondorioen arduraduna.

en la gestión de las ayudas, que requiera el acceso a datos personales, el Ayuntamiento de San Sebastián deberá autorizar la subcontratación, previamente y por escrito, para lo cual deberán indicarse los tratamientos que se pretende subcontratar e identificarse de forma clara e inequívoca la empresa subcontratista y sus datos de contacto.

La empresa subcontratada adquirirá la cualidad jurídica de subencargada de tratamiento quedando obligada igualmente a cumplir las obligaciones establecidas en este documento, debiendo suscribirse entre la persona encargada y la subcontratada por ésta las correspondientes obligaciones contractuales impuestas por el Encargo de Tratamiento.

En el caso de incumplimiento por parte de la subencargada, la persona encargada será responsable de las consecuencias derivadas del cumplimiento de sus obligaciones.

11 Beste norbaiti datuak emateko debekua, salbu eta legezko gaikuntza dagoenean

Tratamenduaren arduradunak ez du baimentzen beste norbaiti lagatzea kontratu honetako datu pertsonalak, salbu eta legezko obligazioen bat dagoenean.

Kontratu hau gauzatu bitartean beharrezkoa izanez gero datu pertsonalak lagatzea, tratamendu arduradunaren beste tratamendu eragile batzuei barne, tratamenduaren arduradunak idatziz emango dizkio instrukzioak eragileari. Instrukzio horietan ageriko da zein erakunderi eman behar zaizkion datuak, zein datu adierazi behar zaizkion eta zein segurtasun neurri hartuko diren jakinarazpen hori egiteko.

Tratamenduaren eragileak datu pertsonalak laga beharko dizkie agintari edo erakunde eskudunei, lege obligazio bat betetzeko, bai eta Europar Batasuneko beste herrialde batzuei ere hala aginduz gero Europako Erkidegoko Zuzenbideak edo kide den herrialde bakoitzeko araudiak. Bidali aurretik, arduradunari jakinarazi beharko zaio datu horiek beste herrialde bati lagako zaizkiola, eta zehaztu egingo da zein datu pertsonal adieraziko diren, zein agintari edo erakunderi eta zein legezko oinarriren arabera. Inondik inora ezingo dira laga datuak aplikatu beharreko araudiak espresuki debekatzen badu hori edo agintari eskudunak hala jakinarazten badio tratamenduaren eragileari modu sinesgarrian.

11 Prohibición de cesión de datos a terceros, a excepción de que exista habilitación legal.

La persona responsable del tratamiento no autoriza la cesión de los datos personales objeto del presente contrato, salvo que exista una obligación legal.

La persona responsable del tratamiento podrá dar instrucciones por escrito al encargado o encargada del tratamiento en el supuesto de que sea necesaria una cesión de datos personales durante el desarrollo del presente contrato, incluyendo la cesión a otros u otras encargadas del tratamiento de la persona responsable del tratamiento. En las instrucciones se identificará la entidad, los datos personales que deben ser transmitidos y las medidas de seguridad de la citada comunicación.

El o la encargada del tratamiento deberá ceder los datos personales para el cumplimiento de una obligación legal a las autoridades u organismos competentes, incluyendo terceros países de la Unión Europea si así lo indicase una norma de Derecho Comunitario o de la normativa de cada país integrante. La cesión de estos datos a terceros países será comunicada a la persona responsable, con carácter previo a su envío indicando los datos personales a transmitir, autoridad u organismo y base legal. En ningún caso deberá realizar la cesión de datos si la normativa aplicable lo prohíbe expresamente o la autoridad competente así lo comunica al o a la encargada del tratamiento de forma fehaciente.

12 Datuak nazioartera bidaltzeko debekua

Tratamenduaren eragileak ezingo ditu datuak Europar Batasunaren esparrutik kanpoko herrialdeetara bidali, eta datuak DBEOaren aplikazio esparrutik kanpoko herrialdeetan biltegitratzeari ere eragiten dio debeku horrek.

Tratamenduaren eragileak beste herrialderen batera edo nazioarteko erakunderen batera bidali behar izanez gero datu pertsonalak, aplikagarri zaion Europar Batasuneko edo estatu kideren bateko zuzenbidearen arabera, eta legezko debekuren bat edo agintari eskudunak jakinarazitako debekuren bat dagoenean salbu, tratamenduaren arduradunaren idatzizko baimena jaso beharko du lehenago, eta beharrezko barmeei buruzko informazioa eman beharko dio horretarako.

Nazioarteko bidalketa kontrol agintaritzaren berariazko baimenaren mende baldin badago, tratamenduaren eragileak ez du bidalketa egingo tratamenduaren arduradunak baimen hori baduela jakinarazi artean.

13 Datuak isilpean eduki beharra

Tratamenduaz arduratzen den pertsonak laguntzak kudeatzen hasi zenetik jakin dituen nahiz eskura izan dituen, gaur egun dituen edo etorkizunean izan ditzakeen datu pertsonal guztiak isilpean gordetzeko obligazioa du. Era berean, enpresatik kanpoko inork datu pertsonal horietara iristeko aukerarik ez duela bermatu beharko du, baita Donostiako Udalak dirulaguntzen kudeaketa amaitu ostean ere.

Illo horretatik, datu pertsonalak tratatzeko baimena duten guztiek datuak isilpean gordetzeko konpromisoa hartu beharko dute, DBEOeko 5.1. f) artikuluan zehazten den moduan, eta tratamenduaz arduratzen den pertsonak bermatu beharko du pertsona horiek konpromiso hori hartzen dutela. Horretarako, tratamenduaz arduratzen den pertsonak bere gain hartzen du datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen gai horri buruzko prestakuntza emateko obligazioa.

12 Prohibición de transmisión internacional de datos

La persona encargada del tratamiento no podrá transferir datos a terceros países ajenos al marco del Espacio Económico Europeo (EEE), incluyéndose en esta prohibición el almacenamiento de los datos en terceros países ajenos al ámbito de aplicación del RGPD.

No obstante, si la persona encargada del tratamiento debiera transferir datos personales a un tercer país o a una organización internacional, en virtud del Derecho de la Unión o de los Estados miembros que le sea aplicable, deberá recabar, salvo prohibición legal o comunicada por la autoridad competente, la autorización previa y por escrito del o de la responsable del tratamiento, facilitando la información necesaria en relación con las garantías adecuadas.

En caso de que la transferencia internacional se encuentre sometida a autorización expresa de la autoridad de control, la persona encargada del tratamiento se abstendrá de efectuar la misma hasta que el o la responsable del tratamiento comunique la obtención de dicha autorización.

13 Deber de secreto y confidencialidad

La persona encargada del tratamiento queda obligada a guardar secreto de todos los datos de carácter personal a los que tenga, haya tenido o pueda tener acceso o constancia desde el inicio de la gestión de las ayudas. Igualmente, deberá custodiar e impedir el acceso a los datos de carácter personal a cualquier persona ajena a la empresa, incluso después de que finalice la gestión de las ayudas para el ayuntamiento de San Sebastián.

En este mismo sentido, la persona encargada queda obligada a garantizar que las personas autorizadas para tratar datos personales se comprometan por escrito a respetar la confidencialidad, como establece el artículo 5.1.f) del RGPD. A tal efecto, la persona encargada se obliga a garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas para tratar datos personales.

14 Segurtasun neurriak: teknikoak eta antolaketakoak

Indarrean dagoen araudiaren arabera, arriskuarekin bat datozen segurtasun neurri egokiak ezarri eta hartu behar ditu tratamenduaz arduratzen den pertsonak: teknikoak eta antolaketakoak.

Segurtasun maila egokia ote den ebaluatzeko, datuen tratamenduak eragindako arriskuak hartuko dira kontuan, zehazki beste era batera bidalitako, mantendutako edo tratatutako datu pertsonalak nahi gabe edo legez kontra suntsitzeak, galtzeak edo aldatzeak eragindako arriskuak nahiz datu horiek baimenik gabe jakinarazteak edo datu horietara baimenik gabe sartzeak eragindako arriskuak. Tratamenduaren

Eragileak neurri hauek hartu behar ditu bereziki:

a) **Jardueren erregistroa:** Tratamenduaren eragileak tratamenduaren arduradunaren esku jarri beharko du, hala eskatzen zaionean, DBEOeko 30. artikuluko Tratamendu Jardueren Erregistroa. Erregistro hori idatzizkoa izango da, formatu elektronikoa eduki ahal izango du, eta honako hauek jasoko ditu:

- Eragilearen izena eta harremanetarako datuak, bai eta eragilearen gaineko arduradun bakoitzarenak ere, eta, halaber, halakorik badago, datuak babesteko ordezkariarenak.
- Tratamenduaren helburua.
- Arduradun bakoitzaren kontura egindako tratamenduen kategoriak.
- Halakorik badago, beste herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera egindako datu pertsonalen transferentziak, beste herrialde horren edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa barne, eta, 49.1. artikuluko bigarren paragrafoko transferentzien kasuan, berme egokiei buruzko dokumentazioa.
- Ahal bada, 30.1 artikuluan aipatutako segurtasunari buruzko neurri tekniko eta antolakuntzakoen deskribapen orokorra.

b) Beharrezko diligentzien artean, tratamenduaren arduradunak Merkataritza

14 Medidas de seguridad: técnicas y organizativas

De conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente, la persona encargada del tratamiento debe implantar y adoptar las medidas de seguridad de índole técnica y organizativas adecuadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado al riesgo.

Al evaluar la adecuación del nivel de seguridad se tendrán en cuenta los riesgos que presente el tratamiento de datos, en particular como consecuencia de la destrucción, pérdida, o alteración accidental o ilícita de datos personales transmitidos, conservados o tratados de otra forma, o la comunicación o acceso no autorizado a dichos datos.

En particular, la persona encargada del tratamiento debe adoptar las siguientes medidas:

a) **Registro de Actividad:** La persona encargada del tratamiento deberá poner a disposición del o de la responsable del tratamiento cuando así le sea requerido, el Registro de Actividad del Tratamiento del artículo 30 del RGPD, que deberá tener forma escrita, pudiendo ser en formato electrónico, y que contendrá:

- El nombre y los datos de contacto de la persona encargada y de cada responsable por cuenta del cual actúe la persona encargada, y, en su caso, del Delegado de Protección de Datos;
- La finalidad del tratamiento;
- Las categorías de tratamientos efectuados por cuenta de cada responsable;
- En su caso, las transferencias de datos personales a un tercer país u organización internacional, incluida la identificación de dicho tercer país u organización internacional y, en el caso de las transferencias indicadas en el artículo 49, apartado 1, párrafo segundo, del RGPD, la documentación de garantías adecuadas;
- Cuando sea posible, una descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad a que se refiere el artículo 30, apartado 1, del RGPD.

b) En el marco de las medidas de diligencia debida, el o la responsable del tratamiento

Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak, zerga kuotak ordaindu izanaren ziurtagiriak eta langileen Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu izanaren ziurtagirik eskatu ahal izango dizkio eragileari, edo datu horiek kontsultatzeko baimena eman diezaiola arduradunari.

- c) Antolaketa neurriei dagokionez, DBEOeko 37. artikulua hala eskatzen duenean, tratamenduen eragileak datuak babesteko ordezkaria izendatu beharko du. Era berean, informazioaren segurtasunerako arduradun batek bideratuko ditu segurtasunari lotuta hautemandako gertaerak, kontratu honetan ezarritako prozedurari jarraituz.

Datuak babesteko ordezkari bat izendatzeko obligaziorik ez dagoenean, kontratu honetan ezarritako prozedurari jarraituz, beste langile bat izendatu beharko da, besteak beste, interesdunen erreklamazioak bideratzeko.

podrá solicitar a la persona encargada del tratamiento las cuentas anuales elevadas al Registro Mercantil, así como certificados de hallarse al corriente de pago de las cuotas tributarias y de la seguridad social de los trabajadores, o que autorice al o a la responsable a realizar su consulta.

- c) En cuanto a las medidas organizativas, la persona encargada del tratamiento deberá designar, cuando sea exigible conforme al artículo 37 RGPD, a una persona Delegada de Protección de Datos. Asimismo, una persona responsable de la seguridad de la información canalizará los incidentes de seguridad detectados dando traslado al/a la responsable del tratamiento de acuerdo al procedimiento establecido en el presente contrato.

En el supuesto de que no exista obligación de designar una persona Delegada de Protección de Datos, deberá designar, además, a otro trabajador o trabajadora para canalizar, entre otras cuestiones, las reclamaciones de las personas interesadas de acuerdo con el procedimiento establecido en el presente contrato.

15 Informazioa eta prestakuntza langileei

Tratamenduaren eragileak datu pertsonalak babesteari buruzko prestakuntza eta informazioa eman beharko dizkie bere langileei, behar adinako prestasunarekin eta kontratu honetatik eratorritako jarduerak betetzen hasi aurretik, datu pertsonalak babesteko eskubidea errespetatzeko premia eta kontratu honetan jasotako antolaketa eta segurtasun neurriak azpimarratuz.

Tratamenduaren arduradunak obligazio hau betetzen dela egiaztatzeko eskatu ahal izango du.

15 Información y formación a empleados y empleadas

La persona encargada del tratamiento deberá informar y formar en materia de protección de datos personales, con la debida diligencia y con carácter previo a la ejecución de las actuaciones derivadas del presente contrato, a sus empleados y empleadas, incidiendo en el respeto al derecho a la protección de los datos personales de las personas afectadas, las medidas organizativas y de seguridad comprendidas en el presente contrato.

El o la responsable del tratamiento podrá requerir la verificación del cumplimiento de la presente obligación.

16 Tratamenduaren arduradunarekin lankidetzan aritzeko obligazioa

Tratamenduaren eragileak bere obligazio guztiak betetzen dituela frogatzeko beharrezko informazio guztia gorde eta tratamenduaren arduradunaren esku jarriko du. Gainera, jarduera hauek eginez, hari laguntzeko konpromisoa hartzen du, beste batzuei

16 Obligación de colaborar con el responsable del tratamiento

La persona encargada del tratamiento conservará y pondrá a disposición del o de la responsable del tratamiento toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de sus obligaciones. Además, manifiesta su compromiso con el deber de colaboración y, sin perjuicio de otras, con la

eragozpenik jarri gabe:

- Datu pertsonalen tratamenduaren arriskuei buruzko azterketa egingo du, eta hala dagokionean, eraginari buruzko ebaluazioa.
- Azkar erantzun go die datu pertsonalak babesteari buruz interesdunek dituzten eskubideei. Tratamenduaren eragileak datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, kontra egiteko, mugatzeko, aldatzeko eta banako erabakietan oinarritua ez izateko duen eskubideari buruzko eskaeraren bat jasotzen badu interesdun batengandik, arduradunari jakinarazi beharko dio eskaera jaso eta 24 ordu pasa baino lehen, eskaerari erantzun egokia emateko garrantzitsua izan daitekeen informazioarekin batera
- Segurtasun arrakalak jakinaraziko ditu, kontratu honetan ezarritako prozedurari jarraituz.
- Tratamenduaren arduradunaren esku jarriko du kontratu honetan hitzartutako obligazioak betetzen direla frogatzeko informazio guztia, bai eta arduradunak edo hark izendatutako beste norbaitek auditoretzak egin ahal izateko eta auditoretzak egiten laguntzeko informazioa ere, ikuskaritzak barne.

17 Segurtasun arrakalen jakinarazpena

Tratamenduaren eragileak ahalik eta eperik laburrenean jakinarazi beharko ditu eskura dituen datu pertsonalei eragiten dieten segurtasun urraketak, gertaeraren dokumentazioa eta jakinarazpenerako garrantzitsua den informazio guztia emanez, okerreko atzerapenik gabe eta gertaera izan denetik 12 ordu igaro baino lehen. Gertaera zuzenean jakinaraziko zaio Donostiako Udaleko segurtasun arduradunari.

Tratamenduaren eragileak tratamenduaren arduradunari lagunduko dio, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazteko betebeharra gauzatzeko beharrezko informazio guztia emanez nahiz hark eskatutako beste edozer emanez. Tratamenduaren eragileak honako informazio hau jakinarazi beharko du gutxienez:

realización de las siguientes actuaciones:

- Un análisis de riesgos del tratamiento de datos personales y, en su caso, la evaluación de impacto.
- La rápida respuesta al ejercicio derechos de los interesados en materia de protección de datos personales. En el supuesto de que la persona encargada del tratamiento reciba una petición por parte de una persona interesada en referencia al ejercicio de sus derechos personales de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación, portabilidad y no ser objeto de decisiones individualizadas, deberá comunicarlo al o a la responsable en el plazo de 24 horas desde su recepción, junto con la información que pueda ser relevante para la adecuada respuesta a la persona solicitante. (
- La comunicación de las brechas de seguridad, de acuerdo al procedimiento establecido en el presente contrato.
- Poner a disposición de la persona responsable del tratamiento de toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente contrato, así como para permitir y contribuir a la realización de auditorías, incluidas inspecciones, por parte de la persona responsable o de una tercera que designe.

17 Comunicación de brechas de seguridad

La persona encargada del tratamiento deberá comunicar en el plazo mínimo imprescindible las violaciones de seguridad que afecten a los datos personales a su cargo, facilitando toda la información relevante para la documentación y comunicación de la/s incidencia/s, sin dilaciones indebidas en el plazo de 12 horas desde que se haya producido el incidente. La comunicación se producirá directamente a la persona responsable de Seguridad del Ayuntamiento de San Sebastián.

La persona encargada del tratamiento colaborará y asistirá al o a la responsable del tratamiento aportando toda la información que sea necesaria para el cumplimiento del deber de comunicación a la Agencia Vasca de Protección de Datos Personales, así como cualquier otra que fuera requerida por la misma. La información a comunicar por parte de la persona encargada del tratamiento será, como mínimo, la siguiente:

- Datu pertsonalen segurtasunari lotutako gertaeren azalpena, ondorioen balorazioa, larritasuna eta interesdunei eragindako arriskuen azalpena.
- Segurtasun arrakalak eragindako segurtasun urraketa motaren azalpena, kaltetutakoen kopurua, datuen kategoria, kaltetutako erregistroak eta formatua (papera edo elektronikoa).
- Sortutako kalteak arintzeko edo, hala dagokionean, kaltetuentzako balizko arriskuak edo eragin kaltegarriak arintzeko segurtasunaren urraketa hautemandakoan tratamenduaren eragileak hartutako edo proposatutako neurrien azalpena.

- Descripción del evento o incidente de seguridad de los datos personales, valoración de la afectación, gravedad y riesgo para las personas interesadas.
- Descripción de la naturaleza de la violación de seguridad, número de personas afectadas, categorías de datos, registros afectados y formato (papel o electrónico) que ha sufrido la brecha de seguridad.
- Descripción de las medidas adoptadas o propuestas por la persona encargada del tratamiento tras la detección de la violación de seguridad para paliar los daños producidos o, en su caso, los potenciales riesgos o efectos perjudiciales para las personas afectadas.

18 Datuak itzultzea

Tratamenduaren eragileak kontratu hau indarrean dagoen bitartean gordeko ditu kontratu honi dagozkion datuak.

Behin kontratua amaitutakoan, tratamenduaren eragileak tratamenduaren arduradunari itzuli beharko dizkio tratatutako datu pertsonalak, erabilitako formatua edozein dela ere. Hala ere, datu horien kopia bat gorde ahal izango du, behar bezala blokeatuta, kontratu hau gauzatzetik eratorritako balizko erantzukizunei aurre egiteko.

Itzulpena tratamenduaren arduradunak datuak bidalitako euskarri berean egin beharko da, eta ondoren, tratatu diren ordenagailutik ezabatu beharko dira eta paper formatuan dauden dokumentuak modu seguruan suntsitu beharko dira.

19 Tratamenduaren arduradunaren obligazioak

Tratamenduaren arduradunak obligazio hauek betetzen direla bermatu beharko du:

- Datu pertsonalak adostutako formatuan entregatzeko obligazioa, laguntzak kudeatzen hasteko behar adinako aurrerapenarekin.
- Laguntzak kudeatzen hasitakoan, behar

18 Devolución de datos

La persona encargada del tratamiento conservará los datos personales objeto del presente contrato mientras se mantenga la vigencia del mismo.

Una vez concluido el contrato, la persona encargada del tratamiento deberá devolver a la persona responsable del tratamiento los datos personales tratados, independientemente del formato utilizado. Sin perjuicio de que pueda conservar una copia de los mismos, debidamente bloqueada, para responder de las posibles responsabilidades derivadas de la ejecución del presente contrato.

La devolución deberá realizarse en el mismo soporte en la que le fueron remitidos por la persona responsable del tratamiento, procediendo al borrado de los ordenadores donde fueron tratados y a la destrucción segura de los documentos en formato papel.

19 Obligaciones de la persona responsable del tratamiento

La persona responsable del tratamiento deberá garantizar el cumplimiento de las siguientes obligaciones:

- Obligación de entregar los datos personales en los formatos acordados y con la antelación suficiente para el inicio de la gestión de las ayudas
- Comunicar en la debida forma y con

bezala eta behar adinako aurrerapenarekin jakinaraztea datuak babesteko ordezkararen eta segurtasun arduradunaren kontaktua.

- Jakin ditzakeen datu pertsonalen eguneratzeak nahiz tratamenduaren eragileari eragin diezaioketen datuen babesari buruzko eskubideen eguneratzeak bidaltzea, ahalik eta azkarren.
- Eragileak gauzatzen dituen datu pertsonalen tratamenduen arriskuen azterketak eta eraginen ebalazioak egitea, hala dagokionean.
- Tratamenduaren eragileari laguntzea kontratu honetan hitzartutakoak betetzen.
- Kontratu honetan hitzartutakoak, kontratua betetzerakoan eragileari emandako beste instrukzioak, DBEOean bildutako neurriak eta aplikatu beharreko gainerako araudiak betetzen direla egiaztatzea eta kontrolatzea.

antelación al inicio de la gestión de las ayudas, el contacto con el Delegado o Delegada del Protección de Datos y del o de la responsable de seguridad.

- Remitir las actualizaciones de los datos personales que pueda conocer así como el ejercicio de los derechos en materia de protección de datos que puedan afectar a la persona encargada del tratamiento, en el menor tiempo posible.
- Realizar los análisis de riesgo y evaluaciones de impacto de los tratamientos de datos personales que lleva a cabo la persona encargada del tratamiento, en su caso.
- Colaborar con la persona encargada del tratamiento en la ejecución de las estipulaciones contenidas en el presente contrato.
- Verificar y controlar la ejecución de las estipulaciones del presente contrato, de otras instrucciones que puedan comunicarse a la persona encargada durante la ejecución del convenio contrato y de las medidas contenidas en el RGPD y demás normativa aplicable.

20 Tratamenduaren arduradunaren kontrol neurriak

Tratamenduaren arduradunak hitzartutakoak betetzen direla egiaztatzeko jarduerak egiteko eskatu ahal izango dio eragileari, eta beharrezkoa denean, neurri zuzentzaileak hartzeko, betiere tratamenduaren arduradunak ezarritako baldintzen arabera. Kostuak arduradunak hartu beharko ditu bere gain.

21 ERAGILEAREN erantzukizuna

Tratamenduaz arduratzen den pertsonak kudeatu beharreko laguntzetarako ez baldin badago datu pertsonaletara sartu beharrik baina beharrezkoa baldin bada euskarri informatizatuak edo datu pertsonalak babesteko araudiaren mendeko informazio pertsonala duten dokumentuak dauden azpiegiturretara sartzeara, enpresa derrigortuta dago eskura edo iristeko moduan dituen datu horien inolako erabilera edo tratamendurik ez egitera, eta baldintza hori ez betetzeak izan ditzakeen ondorioen eta arau-hausteen

20 Medidas de control del responsable del tratamiento

La persona responsable del tratamiento podrá exigir el sometimiento del o de la encargada a la realización de actuaciones de verificación de cumplimiento, y cuando sea necesario, a la adopción de medidas correctoras, conforme en todo caso a los requisitos que establezca la persona responsable del tratamiento, cuyos costes correrán a cargo de la persona encargada.

21 Responsabilidad de la persona encargada

En el caso de que las ayudas a gestionar por la persona encargada no implique el acceso a datos personales pero sea necesario el acceso a instalaciones donde se encuentran soportes informatizados y/o documentales continentes de información de carácter personal sometida a la normativa de protección de datos personales, la empresa queda obligada a no hacer ningún uso o tratamiento de aquellos a los que pudiera tener acceso o disponibilidad siendo responsable de las consecuencias e infracciones que pudieran derivarse de no respetar esta condición.

erantzule egiten da.

Datuak babesteari buruzko araudia urratzen bada kontratuaren indarraldian, enpresa arduradunak erantzungo die arau-hauste horiei, eta kontratua betetzetik datozen nahiz datuak babesteko araudiak ezarritako betebeharrak eta obligaziotik datozen erantzukizun guztietatik salbuetsiko du Donostiako Udala, idatziz.

En el caso de incumplimiento de la normativa de protección de datos en cada momento vigente la empresa encargada responderá de dichos incumplimientos, eximiendo expresamente y por escrito al Ayuntamiento de San Sebastián de cualquier responsabilidad dimanante de la ejecución del contrato y de todos los deberes y obligaciones impuestos por la normativa de protección de datos.

22 Indarraldia

Klausula hauek arautzen duten hitzarmenaren indarraldi berbera izango dute, sekretu eta konfidentzialtasun betebeharrak izan ezik, horiek kontratua amaitutakoan ere jarraitu egiten baitute.

22 Vigencia

Las presentes cláusulas tendrán la misma vigencia que el convenio del que traen causa, a excepción de los deberes de secreto y confidencialidad que se extienden una vez terminado este.

Bi aldeek kontratu honetan jasotakoak ondo ulertu dituztelarik, onespena adieraziz eta ados daudela erakusteko, eta hala jasotzeko, orri bakoitza izenpetzen dute, eta behealdean bi aldiz sinatzen dute, goiburuan zehaztutako leku eta orduan.

Con expresión de su consentimiento y en prueba de su conformidad, teniendo las partes un perfecto entendimiento de los compromisos asumidos en el presente contrato, para que así conste, rubrican cada hoja y firman al pie por duplicado, en la fecha y lugar indicados en el encabezamiento.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Fomento de San Sebastián, S.A.